

## GU TA GUTARRAK

### Magdalena Mouján Otaño

*Euskotarra naiz, eta umore senaz jantzia*

Euskaldunok ez gara inola ere arrazista. Ez gara arraza bat, espezie bat baizik. Beste espezie batekin nahastean euskaldun garbi nahasgabeak ematen segitzen duen espezie bat da. Ebanjelioan esaten da zer edo zer legamiaz eta ziapeaz, ezin naiz, ordea, zehazki gogoratu han esaten denaz, nire iritzian badu hala ere zertan edo hartan zerikusirik esaten ari naizenarekin.

Neuri gertatzen zaidana kontuan hartzea aski dut: jatorriz edo etorkiz % 50 baino ez naiz euskalduna, eta frantses bat aurrez aurre jartzen didaten aldi bakoitzean, gabatxo-frantximantak Orreagan gertatutakoaz kontuak hartzen dizkit. (Esaten dute mairuek lagundu zigutela baina hori ez da egia, egin beharrekoa geuk bakarrik egin genuen. Ez da ere egia traizioz eraso geniela harritzar handiak jaurtiz eta abalantxak probokatuz. Aurrez aurre egin genuen borroka, eta harkaitz puskak pultsuan jasotzen genituen, eta harririk gabe geratzen ginenean mendian behera amilka abiatzen ginen. Jakina haiek..., baina euskaldun batek hitz egiten duenean, haren ahotik espezie osoak hitz egiten du.)

Gauza jakina da: gobernu bat gustatzen ez zaigunean, emigratu egiten dugu. Oro har, indarkeria ez dugu gogoko, bakezko jendea da euskalduna, ez du inor hil nahi, esku garbiz ez bada batez ere. Sarri, gehienetan, emigratzen dugunok *Ameriketak* egiten ditugu. Horixe da niri gertatu zaidana, eta Jainkoak (edo Jaungoikoak, han goian dagoen Jaunak) hain aberats porrokatu nahi izateagatik zigortu egin nau, beti bakarrik, beti bakartasunean bizi izan bainaiz. Izan ere, gauza agerikoa da hemen jaiotako euskaldunak desberdinak direla.

Eremu gizen-emankor eta lau ugari dagoelako izango da. Dena den, euskalduna mendikoa da, horregatik hemen euskaldun asko degeneratu egin da eta *estanciero* bilakatu, eta hartaratz gero aberaskume, arrazaren berezko dohainik gabe. Hainbestearino non errugbian ere jokatzen duten euskal kirol jator-noble tradizioaletan saiatu gabe: aizkoraz mozten edota zuhaitzak ipurditik ateratzen, harriak zulatzen, eta esku leun-bigunak dituztenentzat pilota eta frontoia (xisteraz edo palaz jokatzea baino hobe da eskuz jokatzea).

Bakar-bakarrik bizi izan naizelako euskal espezieaz asko pentsatu eta irakurri dut, eta ikasi dut gure artekoa misterio bat dela, Europako gainerako biztanleekin ez dugula zerikusirik, dirudienez beti hementxe bizi izan garela, Kantauri itsasoaren eta Pirinio mendien ondoan. Eta ikasi dut batek edo bestek esan duela atlanteen ondorengoak garela, baina nik ez dut uste hala denik, Jainkoak ez luke-eta euskaldunetz jendeztaturiko kontinente bat ezereztuko. Betidanik izan dugula beti bezalako estomago gogorra, betiko izaera eta betiko hizkuntza bera, ikasi dut. Gure zainetako odol mota bereziak askori hausnar eginarazi diola. Labur esateko, gure jatorriaz inork

ezer ez dakiela, honetaz guztiaz dagoen gauza bakarra elezahar edo legenda bat baino ez dela, Aitorrena eta Amagoiarena, zeinak lurralde hartara antzina-antzinako garai haietan etorri ziren, eta horien zazpi seme-alabena, zeinek fundatu zituzten zazpi probintziak: Zazpiak-bat.

Askotan itzuli naiz Euskal Herrira, eta aldez alde, batetik bestera, denbora luzean ibili naiz han barrena, baina ezin izan naiz bertan behin betiko gelditu, zuhaitz birlandatua bainaiz. Gure arbaso historiaurrekoez ediren edo aurkitu den guztia ikusten saiatu naiz, eta askotan igo naiz harrian gora Orioko haitzuloraino, eta hango hormetan dauden marrazkiei begiratzuz pentsatu dut euskaldunok beti izan garela haur handi eta beti guhaur. Baditut senitartekoak Euskal Herrian, baina ez dut haiek ikusteko ausardiarik izan, iskanbila itsusia sortu zen-eta elkarren artean, Lehen Karlista Gerratean, nire aitonaren eta haien birraitonaren artean. Kontuan izan ditut ordea testamentuan: dudan guztia haiei utzi diet. Beharbada haien artean izango du baten batek behar beste buru gure espeziearen jatorriaz, zerbait bederen, argitzen saiatzeko.

Den-dena hasi zen osaba Isidro Amerikan hil zela jakin ondoren, berri hori jakiteak haatik ez ninduen tristatu, Jainkoak barka!, ez nuen behin bakarrik ere osaba ikusi; eta berria iritsi zen, esaten zuena, ni nintzela haren oinordeko bakarra. Pentsatu nuen huraxe zitekeela itsasontzi bat erosteko ordua eta korrika Gregoria-ren etxera abiatu nintzen nirekin ezkontzeko eskatzera. Gero jakin nuen nik uste baino askoz diru gehiago zela eta burugabekeria bat proposatu nion, alegia eztei bidaldia egitera atzerrira joango ginela. Halakorik entzutea espero ez banuen ere, baietz esan zidan, onartu egin zuen. Getariako elizan ezkondu eta handik Malagara joan ginen, eta gero Palomares-era.

Hantxe ginen hegazkinek txoke egin zutenean eta hidrogeno-bonbak barreiatu zirenean, eta lan nekagarria izan zen itsas hondora eroritakoa gainera ateratzea. (Mediterraneoan hondoratu zelako, horregatik atera zuten, Kantauri itsasoan izan balitz, joan eta bila zer gertatuko zen.) Handik hilabete batzuetara Ugartetxe doktoreak esan zidan:

—Adizu Iñaki, espero duzuen semeaz jakinaren gainean egotea hobe duzue. Gregoriak eta zuk erradiazio-dosi handia hartu duzue.

Eta hizketan jarraitu zuen, eta nik ulertu ez nituen gauza asko errepikatu zuen, eta errepikatzeko intimoegi diren beste batzuez galdetu zidan, Gregoriak burua bi puskatan zatituko lidake.

Xabierto amak oso ongi mundura zuen, alabaina hamaika hilabete behar izan zituen. Mutiko sendoa zen: hiru hilabete zituenean hatz bat bezain lodiko makila bat bere eskutxoekin bi puska eginda (erdibanatuta) uzten zuen. Euskaldunen artean ez du horrek inoren arretarik erakartzen. Baina gogotik harritu gintuen ume hark lau hilabete zituenean gure arteko inork baino hobeto euskaraz egiteak, Aita Lartaunek berak baino ere hobeto. Ugartetxe doktoreak ikusten zuenean, oso ulergarriak ez ziren gauzak esan ohi zituen, behin eta berriro errepikatuz: “onerako mutazioa” (“mutazio mesedegarria”). Behin batean aparte deitu eta esan zidan:

—Begira Iñaki, orain bai, orain esan diezazuket. Errezibitu duzuen erradiazioak zuri eta zure emazteari erasan dizue eta genetikoki afektatuta geratu zarete. Baina, Jainkoari eskerrak, badirudi hoberako izan dela.

Eta hura bezalako seme-alaba gehiago mundura ekartzeko dagoen obligazioaz beste gauza batzuk ere gehitu zituen.

Jainkoak beste sei eman zizkigun: Arantzazu, Josetxo, Plazido, Begoña, Izaskun eta Malentxo. Denak sanoak (gaitzik gabekoak) eta sendokoteak, sendoetan sendoenak. Eta haiek, lau hilabete zituztenean ezin hobeki mintzo ziren euskaraz, eta kalkuluak irakurri, idatzi eta egiten zituzten bederatzi bete zituztenean.

Xabiartxok zortzi bete zituenean, badator Gregoria eta esaten dit:

—Begira Iñaki, Xabiartxok fisikari izan nahi du.

—Bonbak fabrikatu nahi al ditu? Hori ez da kristau izatea.

—Baita zerako zeraren zera ere Iñaki, kontinuum espazio-denboraren egitura estudiatu nahi du.

—Ezer egiten hasi baino lehen batxilergoa egin beharko du ba!

—Adizu! Iñakik, oraintxe bertan hasi nahi du Unibertsitatean ikasten. Eta Arantzazurentzat eta Josetxorentzat ere gauza bera pentsatzen hasi beharko dugula dio, denbora gutxi barru, Bilbora elektronika ikastera joan behar izango baitute. Hari dagokionez, atzerrira joan beharrak min egiten dio. Baina, dio, oraingoz fisika teorikoa ikasiko duela, eta fisika teorikoa ikasteko, Zaragoza onena.

—Baina-baina emakumea, zortzi urte baino ez ditu eta.

—Eta zer egin behar dugu, Iñaki, neurritz gain dohatua bada.

Eta neurritz gain dohatua zenez, Zaragozan errezibitu zuten, eta hamahiru urterekin fisikan doktore zen. Arantzazu eta Josetxo ere antzeko moduan portatu ziren Bilbon, eta txikienek ere bazirudien fisikarako eta ingeniartzarako zutela joera, eta nik neuk beti Isidro osabaren testamentua nuen gogoan, non idatzita zetorren zenbat gustatuko zitzaion familiako norbaitek euskaldunen jatorriaren nondik norakoak estudiatzea, eta pentsatzen nuen nire seme-alabek, neurritz gain dohatuak izanarren, hilaren nahia edo desioa ez zutela egingo eta beteko.

Handik laster esan zigun Xabiartxok Frantziara, Estatu Batuetara edo Errusiara bidaiatu beharrean zela bere ikasketak hobetzera. Haren adineko mutil batentzat Paris ez zela leku egokia, esan zuen Aita Lartaunek.

—Estatu Batuei eta Errusiari dagokienez, herrialde heretikoak dira, eta beraz zuri zer esan ez dakit, eta, bestalde, mutikoaren ikasketa-karrerak ez du hutsean geratu behar. Iñaki, onena amak erabakitzea da.

Aspaldiko partez Gregoriak ez zekien zer erabaki, baina, noizbait, burutapen distiratsu bat izan zuen. Donostiara joan zen, eta Aita Lauranten baimenarekin, Donostiako Nazioarteko Zinemaldian erakutsi ziren film guztiak ikusi zituen. Eskandalizatu samarra itzuli zen.

Eta Errusiara bidaltzeko erabaki sendoa hartu eta haxe esan zuen:

—Han, ez du behintzat, arropa arinez jantzitako emakumerik ikusiko.

Xabiartxok lau urte igaro zituen Errusian. Han egin zuen aurreneko gauza izan zen xakean munduko txapeldun zen errusiarra xehatu, porrokatu eta menderatu. Errusiarrek berehala izendatu zuten irakasle Akademgorodok-en, eta Xabiartxoren ikasleek gauza handiak burutu zituzten. Errusiarrek direnak eta ez direnak agindu zizkieten handik ez alde egiteagatik: Akademiko izendatu nahi zuten eta Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuneko Heroi, Lenin saria eman nahi zioten eta buruzagien oholtza bat bizi guztirako, Bolshoi Antzokian, baina Xabiartxok ez zuen ezer onartu.

—Begira, Ama eta Aita: ezin naiz zuengandik eta Kantauritik urruti bizi. Gainera han laborategi handiak eta laguntzaile asko izateko aukera handia dago, nik nahi dudan guztia dago ikerlanean jarduteko, baina niri gehiena interesatzen zaidan arazoa argitzen ez didate uzten. Esaten dute nire teorien eta Marx eta Engels-en Dialektikaren artean kontraesana ematen dela eta makina berez kontraesan bat dela.

—Zein makina, Xabiartxo?

—Denbora neurtzeko makina. Jakina, proiektu bat baino ez da.

—Bada, ez egiteko esaten badizute ere, zuk egin egin behar duzu. Euskaldun bati kontra egiten dionak ez daki zer egiten duen —esan zuen irmo Gregoriak, eta orduan bertan erabaki zuen Xabiartxo, Arantzazu eta Josetxo Estatu Batuetarantz abiatuko zirela.

Han hirurek bi urte igaro zituzten. Yankiek, bertan gelditzeagatik, kontratu handiak eskaini zizkieten, automobil asko, ohorezko herritartasuna eta rantxo bat Texas-en zeinaren hormak luze-zabal guztian telebista-pantailaz bete-beterik baitzeuden, halere nire seme-alabek ez zuten onartu.

—Oi! Ama eta aita, ezin dugu urrutian etsi, eta gainera yankiek ez dute entzun nahi ezta hitz bakar bat ere denbora-makinaz. Berez omen da hori, -halaxe diote- kontraesan bat eta arriskutsua “American Way of Life” delakoarentzat.

- Bada ez dela egin behar den-denek badiote ere, zuek berehala hasi eta lehenbailehen egin behar duzue —esan zuen irmo Gregoriak—. Zuek egingo duzuen da hementxe bertantxe egin, ez beste inon.
- Baina gurekin batera lanean aritzeko jende gehiago beharko dugu, eta lanabes asko, eta konputagailu bat, eta liburuak erruz.
- Hori gure esku dago —esan nuen nik—. Ez dizuegu behin ere esan zein aberats garen, baina osaba Isidrok diru mordo ikaragarri handia utzi zigun, Europako banketxe askotan banatua. Diru kopurua zenbatekoa zen esan nien eta haiek aitarenka hasi ziren. Arantzazuk gaineratu zuen:
- Osaba Isidro ez bide da izan euskaldun batek izan behar duen bezain gizon onradua.
- Ez ezazu hartaz horrela hitz egin, hilda dago eta. Eta gauza bat esan behar dizuet: testamentuan esaten du asko poztuko litzatekeela familiako norbait euskaldunok nondik gatozen jakiten saiatuko balitz, agidanean oraindik inork ez baitaki. Xabierto, denbora-makinak balio al du horretarako?
- Balio du.
- Hortaz, ekin eta egin.
- Baina jendez urri gabilta eta hori arazo larria da. Arrotzak ekarri beharko dira, eta ezinbestean institutu zientifiko bat edo antzeko zerbait beharko dugu.
- Bada Institutua geuk fundatuko dugu. Eta hementxe funtzionatuko du, Kantauri itsasoaren ondoan. Eta zerori izango zara zuzendaria, eta gogoak ematen dizun jendea ekarriko duzu zurekin lan egitera. Eta hemen estudiantuko dute zure anaia gazteenek, eta hori dela eta ez dute atzerrira joan beharrik eta jende arrotzarekin tratatu beharrik izango.

EUSKALDUNEN JATORRIA IKERTZEKO ZENTROA fundatu genuen Oriotik hurbil ibar batean, mendi artean ongi gordeta eta errepideetatik urruti, inork molesta ez gintzan. Han bertan zeuden aspaldi-aspaldiko hondakin batzuen gainean harrizko eraikin polit bat eraiki genuen, handia, Xabiertoaren proiektuan parte hartuko zuten guztiek bertan aterpea izan eta lan egin zezaten, eta kapera bat eta frontoi bat ere erantsi genizkion. Ondoren Xabierto, Arantzazu eta Josetxo Bilbora joan ziren, eta lan zientifikoa egiteko behar zen materiala enkargatzen hasi ziren eta lantegian lanean lagunduko zien langileak bilatzen.

- Gaitasun handi-handiko jendea behar dugu, oso arazo korapilatsua baita. Eta oso ohoragarria. Kalte egiteko erabiliko duenari makina sal ez diezaion.
- Hortaz, saia zaitez bilatzen gauza horiek egiten iaio diren euskaldunen artean, horiek ez zaituzte traizionatuko. Eta atzerritarrak badira, behartu itzazu euskaraz

egitera. Euskaraz hitz egiten ikasiko duen atzerritarra nahitaez izango da buruargia, eta gainera zintzoa, Jainkoak gaizkile bati euskara ikasten ez lioke utziko-eta. Deabruak hemen zazpi urte egin zituen, eta ezin izan zioten elkarri ulertu, ez hark haiei ez haiek hari.

Bi urte barru Institutua funtzionatzen hasi zen. Hogeita hamar fisikari eta ingeniari ari ziren bertan, gizonezkoak eta emakumezkoak, nire seme-alabez gainera. Hogeita hamar horietatik, hamabost euskaldunak ziren, eta gainerakoak atzerritarrak: katalanak, galiziarak, gaztelarrak eta argentinar bat odolez euskalduna, Martin Alberdi zeritzana, beti txantxetan ari zena eta Gregoriari **Dona Goya** esaten ziona.

—Nik hemen egiten dut lan zuek biziki atseginak zatzaizkidatelako, Arantzazu bereziki, —esaten zuen— baina denbora-makina delako horrek ezin duke arrakastarik izan. Demagun, **Dona Goya**, zure denbora-makina horrekin halakoren batek iraganera bidaiatu eta bere aitona hiltzen duela. Eta orduan, adios bata eta agur makina. Ez al zara konturatzen ideia horrek barrenean kontraesan oinarritzko bat duela?

—Inola ere ez dut kontraesanik ikusten, euskaldun den inori ez litzaioke-eta bere aitona hiltzea bururatuko, beraz euskaldun batek makina egin dezake -erantzun ohi zuen Gregoriak.

Gure seme-alabak, aldiz, lantzean behin ez zeuden hain seguru. Arazoa, ziotenez, osa zail bihurtzen ari zen, eta kalkuluak izugarri korapilatsuak ziren, nahiz eta eskura zuten JAKINAISUGURRA konputagailua (“mutur ikertzailea”), Eibarren osoki egina.

—Logika komunarekin manejatuz ezin dugun problema bat da. Paradoxa gehiegi dira. Beste logika bat behar dugu, orain artean eraikia izan ez dena.

Egun batean Xabiartxok esan zuen gauzak okerretik okerragora okerrege zihoazela, eta beste gabe jendeari ez zitzaiola hainbeste denbora alferrik galarazi behar, eta hori osaba Isidro utzitako ondarea eralgitzea zela, eta hobeko zuela Institutuak zer edo zer emankorragorik egiten saiatu. Amak orduan errieta egin zion ordu arte inoiz egin ez zion moduan.

—Badirudi ez zarela euskalduna, atzera egin nahi baituzu. Ahaztu egin ote zaizu zure ama Getarian jaio zela, Sebastian Elkano jaio zen bezalaxe?

—Barka ama—esan zuen Xabiartxok, eta berriro formulak idazten segitu zuen. Noizbait Malentxok, txikienak, erremediorik gabe zegokien logika berria asmatu eta irtenbidea aurkitu zien.

Orduan hasi ziren ALDI ESPERIMENTAL AURRETIKOA zeritzatenarekin, eta tresna arraro batzuekin nire txapelean gauza bitxi batzuk egin zituzten, eta iruditu zitzaidan ferietan egin ohi dituzten trikimailuak zirela. Haiek, ordea, beren onetik aterata zeuden, eta buruak ematen ziena ikusten eta miatzen berriro zeharo beste modu batean hasi behar zela, eta Martin Alberdi argentinarrek zioztan FISIKAN IRAULTZA HANDIA eman zela,

Erlatibitatea baino askoz garrantzizkoagoa, Quantumen Teoria baino eta Atomo Bonba baino askoz garrantzi handiagokoa, eta gero aparte deitu zidan, eta lur jotako baten aurpegiarekin, beste norbaitenean ikusi izan banu zeharo engainatuko ninduen, esan zidan:

—Iñaki jauna, potentzia handiak gainerik jarriko zaizkigu SEKRETUA kentzeko. Hemen ez da hartzen segurantza-neurririk. Nolatan ez dago guardiarik? Ez al dira mesfidatzen inortxo eta ezertxo? Gure aurrekoen berriak jakiten inoiz saiatu ote dira bada?

—Begira Martin. Haien lagunak prestutasunaz zuri bakarrik burura dakikezu txantxetan aritzea. Eta nondik arraio atera duzu guardiarik ez dugula? —eta nire hiru zakurrak erakutsi nizkion, Nere, Txuri eta Beltxa, hirurak eguzkitan etzanda-. Eta ba al dakizu zakur gehiago ere badela, hau da, arraza oneko zakur arrak eta zakur emeak, txakur arrantzaleak eta artxakurrak, euskaldunoi bestelako zaintzailerik ez baitzaigu gustatzen, ezta zuri ere.

Oso izaera desberdina bazuen ere, Martin langile porrokatua zen. Xabiartxok esan ohi zuen oso-oso argia zela, Arantzazuk oso begiko zuen, eta denok asko maite genuen. Hark esan ohi zidan:

—Haren seme-alabak gaindohatuak izango dira, ni, ordea, oso bizia.

Eta laster hasi zen nire emazteari Ama deitzen eta niri Aita, eta gero, bere betiko errespetu ezarekin, Ama Goya eta Aitor.

Eta nire txapelarekin esperimenduak egin ondoren, nire seme-alabak eta haien lagunak traste metaliko arraro bat, koloretako argi txiki-txikiz betea, muntatzen aritu ziren denbora-pasa. Oso polita zen, eta mutikoek PINPILINPAUSA deitzen zioten.

—Eta orain probatu egin beharko da —esan zuen Xabiartxok, zertxobait kezkatuta—. Baten batek joan egin behar du.

—Jakina, zuk joan behar duzu —esan zuen Gregoriak—. Eta horrelakoetan ohi denez, zure etxeko guztiak zurekin joango dira. —Eta hain gauza bidezkoaz ezin izan zuen inork eztabaidatu.

San Sebastian egunean Aita Laurtaunek meza eman zuen Institutuko kaperan, eta PINPILINPAUSA bedeinkatu zuen, eta horri Jesusen Bihotzaren imajina txiki bat eransteke eskatu zuen Gregoriak. PINPILINPAUSA kaperatik urrun jarri genuen, hantxe ibarraren erdi-erdian. Eta gu haren inguruan jarri ginen, familia osoa, eta baita Nere, Txuri, Beltxa hiru zakurrak ere. Gure adiskideek, Institututik bertatik, agur esateko, hauxe kantatu ziguten:

<<Agur jaunak,  
jaunak agur,  
agur t' erdi...>>

Xabiartxok botoi gorri bat zapaldu zuen eta makina burrunba egiten hasi zen.

—Badirudi ez duela funtzionatu.

Edifiziotik berriro kantatu zuten:

<<Agur jaunak,  
jaunak agur,  
agur t'erdi...>>

Eta berriro botoi gorria zapaldu zuen, eta berriro burrunba, eta gazteen aurpegiak gero eta atsekabetuago.

Bizpahiru aldiz gehiagotan proba egin ondoren, Xabiartxok esan zuen:

—Porrot egin dugu

Tarte batean isilik geratu eta gero Xabiartxo, txapela atze aldera bota, txakurrei buruan hazka egin eta aurpegi ilunarekin mendi aldera abiatu zen. Mutila mendian bakarrik uztea hobeko zela esan zuen Gregoriak, eta biharamunean hitz egingo genuela ea PINPILINPAUSA errebisatzea komeni zen ala ez makinan zerk huts egin zuen jakiteko edota zuzenean makina berri bat egiten hasteko. Oraingoan hiru zakurrek ez zioten kasurik egin Gregoriak esandakoari eta Xabiartxoren ondotik joan ziren.

Institutura itzuli ginenean ez zuen inork hitz egin. Xabiartxo ez zen gau osoan etxean azaldu, ezta hiru txakurrak ere, eta Institutuan ez zuen inork lo egin. Eguna zabaldu zuen, eta zabaldu zuenetik hortxe nonbait bi ordu inguru, bat-batean irrintzi bat entzun genuen mendian (bozkariozko oihua, gerra-oihua), eta Nere, Txuri eta Beltxaren zaunkak entzun genituen, eta zakurrak ziztuan mendian behera zetozela ikusi genuen, eta haien ondotik, jauzika zalu, Xabiartxo, eta harekin batera gizon bat, itxuraz euskalduna. Eta Xabiartxok, iritsi orduko, esan zuen:

—Gertatu dena da ekintza-eremua aurrez pentsatua baino askoz handiagoa izan dela. Oinez ibiltzen hasi nintzen, eta mendiak zeharkatu nituen, eta hondartzan arrantzale honekin egin nuen topo. Txapela atzeko aldera botata neukala ikusi zuen, eta behar nuen hartarako laguntza eskaini zidan. Hizketan hasi ginen, eta beste askotan bezala, gobernu zentralaren aurka gaizki esaka, **Foruak** oso gutxi errespetatzen dituela eta horrelakoxe kontuak. Eta denetan gaizto-okarrenak, esan dit, Don Carlosek berekin ekarri dituen flandestarrak direla. Ni ia-ia konortegabetu naiz, eta dataz galdetu diot. Eta gaur 1524ko uztailaren 7a da. Gertatzen dena, izan ere, hauxe da: iraganera etorri gara guztiok, Institutuarekin, ibarrean dagoen guztiarekin.

—Esango nuke horiek guztiak Deabruaren gauzak direla, baldin euskaraz ari ez bazinete. Gainera, baldin Sebastian Elkanok, Getariakoak, inon erori gabe



munduari jira osoa eman bazion, uste izateko da ez dagoela egin ezinezkorik, egin nahi den edozer gauza egin litekeela alegia —esan zuen arrantzaleak.

Martinek, aurpegi kezkatuarekin, Xabiartxori bereiz deitu zion esateko:

—Kaixo, anaia, habil kontuz, hiri ziria sartzeko asmotan ari dela uste diat eta.

Oso zaila izan zen hura konbentzitzea, nahiz eta laborategian probak egin zirenean hain seguru agertu, eta egia onartu zuen soilik mendi tontor baten gainetik, bere prismatikoekin, Donostiako portura bi karabela hurbiltzen ari zirela ikustean; Donostiatik Getariarako errepidea desagertu egin zela konprobatu ondoren eta Getaria bisitatu eta Sebastian Elkanoren estatua bertan ez aurkitzean, Sebastian Elkano bera, ordea, bertan aurkitzea.

—Gehiena harritzen nauena da, **Doña Goya** —zioen Martinek gero Institutuan eman genuen bazkari oparoan, sardina erreak eta sagardoa mahairatzen ari zirenean—, hogeigarren mendeko euskal arropa hauekin ikusiarren eta hitz egiten dugun euskara hizkuntza entzunarren, deigarri ez gertatzea hamaseigarren mendean. Lau menderen buruan euskaldunak hontan edo hartan ez aldatzea litekeena ote da?

—Eboluzionatu ez duen herria, bilakaerarik izan ez duen herria. Huts larria da, larria, zioten atzerritarrek, bakailaoa eta angulak, oliotan berotuta, ahogozatzen zituzten bitartean.

—Ez ote nizuen bada esaten? —jarraitu zuen Martinek—. Euskal probintzietan neolitikoei olatuberri **nuevaoleros** esaten zaie, eta oso gaizki ikusiak daude. Eta denak barrez hasi ziren.

Hantxe aritu ziren txantxetan, eta larru bete jan eta edan genuen, ezpata-dantza dantzatu genuen, aurrekua eta zortzikoak, eta, zer erremedio, Martini baretzeko eskatu genion, izan ere gure txistularien taldean sartu eta aldian-aldian erritmoz aldatzen zuen eta euskal doinuekin zerikusirik ez zuten aireak jotzen zituen. Eta gero elkarrekin bildu ginen zer egingo genuen erabakitzeko.

—Ba, berriro atzera egin jauzi, esan zuen Gregoriak, jatorritik oraindik oso urruti gaude eta.

1524ko uztaileko 7tik 8rako gaua joan zen, eta eguna zabaltzen hasi orduko guztiok, Xabiartxori berri ona eman zion arrantzalea barne, pausoa iraganera egiteko prestatu ginen. Aita Lartaun oso kezkatuta zegoen:

—Ondo asko dakizuenez, gure aurrekoei konbertitzen denbora luzea joan zitzairen. Normala da, herri setatsua baita gurea. Hurrengo jauziak paganoen herrialdera eramango gaitu.

PINPILIPAUSAK berriro funtzionatu zuen. Oraingoan kalkulu asko egin ziren eta esan zuten zortzigarren mendera joango ginela, eta haraxe joan ginen. Ibarrak lehenean segitzen zuen batere aldatu gabe, baina batetik bestera mugitu ginenean, ez zeuden han ez Getaria, ez Donostia, ezta Urgull mendiko gaztelua ere. Kantauri itsasoan zeuden arrantzontziak lehengoak berak ziren halere, eta bazter guztietan ikusten ziren zakur zuriak, beltzak edota ile latzekoak, gaztaina-kolorekoak, Txuri, Beltxa eta Nereren antz-antzekoak. Ez genion inori atentzioa ematen beste euskaldun batzuekin bidean gurutzatzen ginenean. Inoiz edo behin galdetu ziguten, guk egiten genuen euskara bezalakoxean, ea ikusi genuen ingurumari haietan godo sailik. Ikusi genituen euskaldun guztietatik erdiak, gutxi gorabehera, kristauak ziren.

—Gainerakoez esaten zuen Aita Lartaunek, diote erlijio berria ona dela, baina gurasoen erlijioa aldatzea gauza txarra dela. Oker aritu nintzen haiei pagano deitu nienean, izan ere erlijio naturalari atxiki eta oraindik ere halaxe segitzen dute...

—Eta zuk ez al diezu Ebanjelioa predikatzen, Aita?

—Predikatu? Bai, zer edo zer saiatu nintzen, baina ondotxo dakizuenez euskaldun batek ideiaz aldatzea oso zaila da, oso zaila ere...

Bidari batzuk pasatu ziren, eta beren baserrian bazkaltzera gonbidatu gintuzten. Lotsa sentitzen genuen nondik (noiztik) gentozen esateko gauza ez ginelako. Aita Lartaun bera ere ados zegoen egia gauza bitxiegia zela irudituko zitzaie, arrarotzat hartuko zutela, Deabruaren gauzak dira horiek esango zutela, edo Basajaunarenak (euskal mitologiako gizakia, oihaneko, basoko jauna). Gezurra esan behar zen, mendiz bestaldekoak ginela esan behar zen, ordea ezein euskalduni ez zaio gezurra esatea gustatzen. Egin ziguten abegi ona onartu eta txitxardinak (angulak), urdaia babarrun gorriekin eta gazta jan genuen eta sagardoa edan, eta aureskua egin, kantuan aritu, eta eskerrak eman ondoren, *Agur jaunak* kantatuz agur esan genien. Eta berehala beste jauzi bat egin genuen. Lotsa-lotsa eginda geratu ginen gezurra esan genuelako. Aita Lartaun orain guztiz kezkatuta zegoen.

—Ez ote zarete baina konturatzen? Salbatzailea oraindik etorri ere egin ez den garaira goaz orain.

Eta hara joan ginen. Eta ikusitakoak ikusi, aldaketa ez zen oso nabarmena. Dantzan egiten zen, kantatu, eta gauza berak jaten ziren, eta elkarri oso ongi ulertzen genion, batere aldatu ez zen euskara ederrean. Jakina, han ez zegoen gurutzerik, eta Aita Lartaun beti oso kezkatutik zegoen.

—Izan ere nire eginkizuna paganoei predikatzea da. Eta nola predikatu, Kristo oraindik jaio ez bada?

—Ezin badu predikatu, profetiza beza Aita —esan genion—. Berorrena baino profetia seguruagorik ez dagoke —esan zion, barrez, Martinek, zeina bestalde eskandalizaturik zegoen beti izango ziren bezalako euskaldunekin aurkitzeagatik eta topo egiteagatik.

Berrero jendearen abegi eta harrera ona onartu genuen, baina lotsa sentitzen genuen nondik eta zein garaitatik gentozen esan genienean lotsagarriro gezurra esan genielako. Txitxardinak eta sardina erreak jan genituen, eta urdaia babarrun gorriekin, eta denek galdetzen ziguten ea ez al genituen ikusi sudur luzeko munstro haiekin batera mendiak gurutzatzen ari ziren Hegoaldeko jende haiek. Aita Lartaunek zerbait esan zien Asdrubalez, Anibalez eta berorien familiaz, eta denek errespetu handiz begiratu zioten. Inoiz ere irakurri behar ez den liburu batetik, izenez “Salambó”, atera zituen zertzelada batzuk kontatzen hasi zen Martin, baina Xabiartxok ez zion kontatzen jarraitzen utzi, hau esaten ziola:

—Euskaldunak, historian esaten denaren arabera, kartagotarren adiskideak izan ziren. Historia bestelakotuko zenuke baldin eta konbentzituko bazenitu kartagotarrak pertsona degeneratuak izan zirela, eta direla.

Eta historia aldatzea erantzukizun handikoa denez, Martinek ez zuen gehiago hitzik esan.

Iraganaldira egin genuen jauzi, orain artekoan baino askoz atzerago, eta halere dena zen utzi genuenaren antz-antzekoa, hori bai, baseri gutxiago zegoen, eta jende asko mendietako haitzuloetan sartu-atera zebilen, eta asko eta asko haietan bizi zen. Jadanik ez ginen harritzen haiek guztiak hain gure antzekoak izatearekin, ezta gure hizkuntza haiena ere izatearekin.

Orioko haitzuloraino lauoinka igo eta barrura sartu ginen. Bien bitartean han ari zen isildu gabe Martin:

—Gaur boladan dago espeleologo izatea. Milaka urte beharko dira moda hori berriro bueltan etorri baino lehen.

Gero, han ageri ziren pinturei begira, esan zuen:

—Hurrengo jauzian, agian, haitzulo hau dekoratu zuen artista ezagutzen ahalko dugu.

Arrantzaleen lagun egin eta haien txalupetan itsasora jo genuen, Nere, Txuri eta Beltxarekin, eta atuna atzematen oso abilak zirela erakutsi ziguten. Kantaurin askoz arrain gehiago zegoen, eta Santa Clara uhartetik gertu kaxalote handi-handiak ere ikusi nituen.

Bilera egin genuen eta Xabiartxok, oso kezkatu, jakinarazi zigun:

—Oraintxe berehala erabaki behar dugu: PINPILINPAUSA hauskorra da, eta jauzi berri batek lur joaraziko dio. Gure jatorria zein izan zen behingoz jakiteko, gure garaialdira itzuliko gara ala iraganaldira joko dugu?

—Auzi honek bozkatzea merezi du, eta beraz botoetara joko dugu —esan zuen Gregoriak. Eta baba txuriak eta beltzak ekarri eta nire txapela hartu zuen. Atzera egin nahi duenak, bota beza baba beltz bat. Aurrera egitekotan denak, bota beza baba txuri bat.

Agindu bezalaxe egin zen, eta txapela beste aldera jarri zutenean, bakarrik baba txuriak erori ziren.

Berrero aurrera egin genuen jauzi. Zertarako egingo eta....lur haietan giza aztarna izpi bat ere ez aurkitzeko. Izotzetan eta elurretan lauoinka Orioko haitzulora igo ginen, baina han ez zegoen pintura arrastorik. Eta PINPILINPAUSAK ez zuen handik aurrera gehiago funtzionatu.

Hori guztia gertatu zela badira urte batzuk. Harrezkero oso pozik bizi gara. Bost axola guri hotza, handia egiten badu ere, aterpe egokia baitugu eta lan gogor egiten dugu, jatekoa berriz hor ondoan daukagu, Kantaurin, izotzik gabe baina arrainez betea dagoen itsasoan. Nire seme-alabak eta haien adiskideak, Nere, Txuri eta Beltza eta beste txakur asko ondotik dituztela, hau da, hiru txakur arrantzaleen umeak eta bilobak, hor joaten dira itsasora arrainak atzematera eta kaxaloteak eta baleak harrapatzera. Garai bateko ontziak bezalakoetan joaten dira beti, alegia azkeneko jauzia egin baino lehen bertan bildu eta pilatutako zurez egindako ontzietan. Eta oso urrutiraino joaten dira.

Denok pozik bizi gara. Jakina, kezkatuta gaude, Eliza Ama Santua fundatzeko oraindik denbora luzean zain egon behar izango baitugu, eta hori da, batez ere, Aita Laurtaun gotzain ez delako eta, beraz, apaiz inor ordenatu ezin duelako. Jainkoari eskerrak, apaiz on hau sasoiko dago, eta gure gurasoen erlijoa bezalako oraindik aldi baterako izango dugu. Halako batean zer gertatuko den..., probidentzian fidatu beharko da.

Familia berri batzuk sortu dira. Arantzazu eta Martin elkarrekin ezkondu ziren eta alabatxo bat dute. Neskatoari asko gustatzen zaio marraztea eta etengabe ari da Orioko haitzuloko ormak pintatzen. Bizi ere bertan bizi da bere gurasoekin.

Oso pozik gaude, beharrezkoetan, beti bizi izan garen bezala bizi baikara. Eta oso konforme, PINPILINPAUSAK bere egitekoa bete egin baitzuen eta azkenean orain badakigu nork eman(go) zioten-genion-diogun jatorria euskaldunei: **gu ta gutarrak**